

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Kultura 04. <i>Cultura</i>	03. Kirola 03. <i>Deporte</i>	450.205 Kirol Federatua 450.205 <i>Deporte Federado</i>

“Kirol federatua” izeneko egitarauaren helburu orokorra federazioen jarduera bizkortzea da; horretarako, behar izanez gero eguneratu egiten dira federazioen egiturak, eskaintza dibertsifikatuz kirolarien kopurua handitzeko.

Gure helburu orokorra betetzeko, 2013ko ekitaldian garatu beharreko ekintzak lau jardueralerrotan jasoko ditugu:

1.- Federazioen lana gainikustea, eskuordetuta dituzten egiteko publikoak betetzen dituzten egiaztatzeke, eta beren helburuak lortzen laguntzea.

- Federazioen finantza egonkortasuna bermatzea.
- Kirol federazioei aholku ematea estatutu eta araudien aldaketaz eta hauteskunde prozesuez, besteak beste.
- Bizkaiko kirol federazioekin lankidetzan aritzea haien baliabideen eta baterako zerbitzuen kudeaketa hobetzeko.

2.- Etorkizun handiko kirolarientzat eta elitekoentzat baldintza ekonomiko eta tekniko hobekak lortzeko neurriak hartu eta aukerak eskaintzea:

- Kirolariak teknikari bihurtzeko federazioen programak antolatzen laguntzea.
- Bizkaia-Bizkaialde fundazioari laguntzea goi mailako kirolerako baliabideak lortzen.
- Bizkaian kirol gertakariak antolatzen laguntzea.

El Objetivo General del programa “Deporte Federado” es dinamizar la actividad federativa realizando, en su caso, las necesarias actualizaciones de las estructuras federativas, al objeto de incrementar el número de practicantes diversificando para ello la oferta.

Para cumplir nuestro objetivo general englobaremos las acciones a desarrollar durante el ejercicio 2013 en cuatro líneas de actuación:

1.- Tutelar a las federaciones en el cumplimiento de las funciones públicas en ellas delegadas y apoyarlas en la consecución de sus objetivos.

- Garantizar la estabilidad financiera de las federaciones.
- Asesorar a las federaciones deportivas, en relación, entre otros asuntos, a las modificaciones estatutarias y reglamentarias, procesos electorales...
- Colaborar con las federaciones deportivas de Bizkaia en la optimización de la gestión de los recursos y servicios comunes de las mismas.

2.- Adoptar medidas y ofrecer oportunidades para lograr condiciones económicas y técnicas más favorables para el deportista promesa y de élite.

- Colaborar en la organización de programas federativos de tecnificación para deportistas.
- Colaborar con la Fundación Bizkaia-Bizkaialde en la obtención de recursos para el deporte de alto nivel.
- Apoyar la organización de Eventos deportivos en Bizkaia.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Kultura 04. <i>Cultura</i>	03. Kirola 03. <i>Deporte</i>	450.205 Kirol Federatua 450.205 <i>Deporte Federado</i>

- Beste aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta jardutea.

3.- Etorkizun handiko kirolarien kirol jarduera hobetzea:

- Kirol medikuntzaren ikuspegitik, aholku eta laguntza ematea kirolariei, teknikariei eta federazioei, kirolarien osasuna zaindu eta haien kirol errendimendua hobetzea helburu duten programak diseinatu eta garatu ditzaten.
- Kirol medikuntzaren inguruko azterlanak eta ikerketak bultzatzea, eta medikuntza mota honi buruzko testuak sortzea eta zabaltzea Bizkaiko kirola hobetzeko asmoarekin.

4.- Herri kirolen modalitateetako jarduera sustatu eta eguneratzea:

- Euskal kirolen federazioak aldezte eta haiekin lankidetzan aritzea.
- Bizkaian euskal kirolen ekitaldiak antolatzea sustatzea.
- Herri kirolen aldeko bereizketa positiboa egitea, Kirol Federatuaren Atalak ematen dituen mota guztietako laguntzetan.

Era berean, beste ekitaldi batzuetan bezala, Artxandako "Berriz" tiro-zelaian obra txikiak egitea aurreikusi da.

- Trabajar en coordinación con el resto de Diputaciones y el Gobierno Vasco.

3.- Mejorar la práctica deportiva saludable de las y los deportistas promesas.

- Asesorar y colaborar desde el punto de vista de la medicina del deporte a deportistas, personal técnico y federaciones en el diseño y desarrollo de programas destinados a cuidar de la salud de los y las deportistas y a mejorar su rendimiento deportivo.
- Impulsar la realización estudios e investigaciones, así como elaborar y difundir textos relativos a la medicina del deporte que redunden en la mejora del deporte vizcaíno.

4.- Impulsar y actualizar la práctica de las modalidades deportivas autóctonas.

- Apoyar y colaborar con las federaciones que dispongan de modalidades o disciplinas de deporte autóctono.
- Fomentar la organización de actividades de deporte autóctono en Bizkaia.
- Discriminar positivamente al deporte autóctono en todo tipo de ayudas que se den desde la Sección de Deporte Federado.

Asimismo, al igual que en otros ejercicios, se prevé la realización de obras menores en el campo de tiro "Berriz" de Artxanda.